

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2001eko urtarrilaren 26a • 206. zka


A group of people, mostly women, are seen from behind, walking away from the camera. They are wearing traditional Basque clothing, including light blue or grey long-sleeved blouses with gathered waists and dark jackets. Some are carrying large, round, woven baskets on their backs. They are holding walking sticks. The background shows bare trees and a building with a red roof under a clear sky.

Santa Ageda gurean

Iturririk iturri: Gurutze Mujika • Iritzia: Oskar Mateo • Kirolak: Alex Justel

Gemes

estetika zentrua



GORPUTZEKO TRATAMENDUA:

zelulitisaren aurkakoa



loditasuna

zirkulazio arazoak



lasaigarria

drenajea

reafirmatzailea

erditze ondokoa

"TERMOESTIMULAZIOA"

Teknika berria

Udaberrira begira zainketak

- ✓ Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza
- ✓ Depilazioa argizari beroaz eta hotzaz. Dekolorazioa
- ✓ Behin betirako makilajea bekain eta espainetan
- ✓ Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak...
- ✓ Azalaren garbiketa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
- ✓ Ordezko azazkalak (natural-naturalak) manikura eta aplikazioa
- ✓ Pedikura
- ✓ Dieta pertsonalizatuak
- ✓ Betileen tindaketa
- ✓ Solarium-a

Durana, 40 2 - ARETXABALETA
Tel.: 943 79 99 18

PAUSOKA HAUR ESKOLAK

Matrikula: Otsailaren 5etik 16ra
Goizez 10:00etatik 11:00etara
Arratsaldez 18:00etatik 19:00etara

2001-2002 ikasturterako izena emateko epea zabaltzen du



Euskaraz hazi eta hezi

Otik 3 urtera bitarteko haurrak talde egokitueta

ORDUTEGI ZABALA:

- Goizeko 7,30etik 18:00ak arte
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK:

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, gabonak, Pazko astea eta uztailaren 24rarte zabalik.

LOGELA

Otalora, 27 behea ARETXABALETA
943 77 03 77

Inmigrantekin dauen arazuei ze erizten dotzazu? Zein uste dozu izengo litzakela konponbidie?



Oihane Agirre

Arazo horri irtenbide bat topetako ordu e dala uste dot.
Hona etorten badie onartu ein biheko gitxuke, edo bestela, euren herrixen lagundu.



Jorge Bengoa

Garai baten hemendik Ameriketara juan zien euskaldunek askoz be tratu hobia auki zauien.
Arazo horri konponbidie emutie gatxa da.



Juliana Carrasco

Horreik be pertsonak die, eta bestioi moduko tratue emun biher jatiela uste dot.
Irtenbidie gobernuak be rak emun biheko lauke.



Jose Luis Eraña

Orokorrien gizartiek kanpotarrak ez dittu onartzen. Guri zeozer kentzera datozela pentsetan dou.
Gizartien pentsamendue aldatu biheko litzake horri konponbidie emuteko.

ESKUTITZAK



NOIZ ARTE?

Kepa erabateko isolamenduan bizi den bitartean, Atxabaltako herritarron berotasuna sentitu dau. Horretarako ostiraletan Atxabaltako plataformak antolatuta kontzentraziñue itten da (19:00etan) eta zapatutan, barrez, Gestorak antolatutako enkarteladie (19:30ean).

Kepak bizi dauen egoerie ikusitte, erabateko laguntza biher dau eta, du da barik, atxabaltarron esku dauen zeregin bat da. Egunak aurrera doiez eta gure erantzuna ezta nabari oraindik. Kepa urruti dau gugandik eta, gauzak horrela, giza esku bide bat urratu itten da. Bai, kasu horretan eskubide batez berba itten gabitz. Gure eskubidiak errespetetie gustetan jakun moduen errespetua

erakutsi diezaiozun Kepari. Noiz arte eskuek gurtzate? Noiz arte ezer ein barik? Bada ordu mobilizetan hasteko eta badauz ekintzak horretarako!

Millurteko berriari ertsiz has gaittezen danok gure aldetik zertxobait emuten. Orain arte Kepari emun dotzauen berotasuna minimue izen dan arren, denboraz gauz temperaturie igoteko. Parte har dezagun mobilizaziñuetan. Ostiral eta zapatuko termometruak gaurtik aurrera egon daittezen atxabaltarron esku!

*Aretxabaletako
Amnistiaren aldeko
batzordea*

Aretxagazeta

206. zenbakia
2001eko urtarrilaren 26an.

Durana 11, 151 postakutxatila
ARETXABALETA
Tel: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz,
Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaileak:
Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila

Loramendi literatur sarien banaketa

Urtarrilaren 18an banatu ziren eskola arteko XII. Loramendi literatur lehiaketako sariak. Urtero bezala, aurten ere, izugarriko partehartzea izan zen. Guztira, 150 lan aurkeztu zituzten, Kurtzebarri eta Almeneko ikasleek. Lehen hezkuntzakoek, ipuin eta poesiak egin zituzten. DBHkoek, barriz, ipuin,

kantu, kontu zahar eta abarren bilketak aurkeztu zituzten lehiaketan. Sariak, Aretxabaletako alkateak, Angel Bergaretxek eta Loramendi euskara elkarreko lehendakariak, Josu Sarasuak banatu zituzten. Irabazleek, pozik jaso zituzten 30.000 eta 10.000 pezeta bitarteko sariak. Zorionak guztiei!



Josu Sarasua Loramendiko lehendakaria saria banatzen

SARITUAK

IPUINAK

LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA

D EREDUA:

- 1.- Maindi Manero (Katua eta artzain txakurra)
- 2.- Martin Berrizbeitia (Bale bat Urkulun)
- 3.- Mikel Osa (Espazioan abenturetan)

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOA

D EREDUA:

- 1.- Garazi Azkoitia (Euskal Herritik espaziora)
- 2.- Lide Mar Barrutia (Zergatik Aretxabaleta)
- 3.- Aitor Ruiz (Txakurra eta katua)

GRABAKETAK

BIGARREN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOA

- 1.- Eukene Marrodan eta Katalin Antxia (Maritxu)
- 2.- Aintzane Iñurrategi eta Veronica Lozano (Lehengo garaiko bizimodua)
- 3.- Jenni Alberdi (Kontu zaharrak)

BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA

- 1.- Ane Remedios (Bernabe Arrese)
- 2.- Leire Lozano (Gure ohiturak sakontzen)
- 3.- Martin Antxia eta Mikel Barrenetxea (Bixente Pagoagari elkarrizketa)

* Elkarrizketatu onenari saria: **Maria Gallastegi** arientzarra

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

RKU

URKULU, S.L.

Mitarte, 23
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABAETA

Zuzendaria:
Lyonel
Arquero
Dekorazioa:
Soraya
Arquero

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 07 34 - 943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA


Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABAETA



Herritarrek egindako azken ekarpenari esker, dagoeneko 28 milioi pezeta batu dira eliza zaharbertitzeko. Orainarte, kanpoaldean eta batez ere, kanpantorre aldean egin dituzte konponketak.

28 milioi pezeta batu dira Eliza konpontzeko

Aurrera doaz Aretxabale-tako Andre Mariaren Zeruratze Parrokiako konponketa lanak. Izan ere, konponketak egiteko beharrezkoak ziren 30 milioietatik, 28 milioi batu dituzte dagoeneko. Azken hilabetean, herritarrek egindako ekarpena 7 milioitakoa izan da.

Bestalde, dirua bai, baina, zaharbertitze lanak atzerapen handia jasan dute. Azaroan, eguraldiak ez zuen batere lagundu, hilabete guztian euria egin zuen. Horren, ondorioz,

lehenengo faseko berrikuntza lanak hilabete atzeratu dira. Orain arte, teilatuko bigak eta oholeria guztia aldatu, egurrezko estruktura tratatu, leihoak aldatu, kanpantorreko bodega garbitu eta teillatu berria jarri zaio elizari. Horrez gain, hormak garbitu eta dotrina emateko lokal bat egokitu da elizan bertan. Oraindik, baina, kanpoaldean txukunketa ugari egin behar dira, eta barrualdeko lanak, ustez, ez dira otsailaren lehenengo asterarte hasi-

ko. Auzo elizetan ere hainbat arazo izan da. Azken hilabetetako haize bortitzek hainbat kalte eragin dituzte auzoetako elizetan. Galartzako, Azatzako, eta Larrinuko elizek jasan dituzte, besteak beste, kalteak. Hiruretan, haizeak teilak altxatu ditu. Teknikariak egindako txostenaren arabera, ez dira kalte larriak izan. Hala ere, lehenbailehen eskatuko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari konponketa lanak egitea.

■ **KORUETAKO ELIZAN PIPIAK** Koruetako Santiago elizan, pipien ondorioz, erretaula nagusia hondatzen ari da. Horregatik, diputazioko teknikariek nola dagoen ikus dezaten aldarmioak jarri dira han. Horrez gain, Santiago apostoluaren irudiak, behin eta berriz margotuak daude. Beraz, azterketa egin ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiak berritze lanak egitea onartzen badu, irudiei, aintzina zuten margo bera jarriko zaie. Eginbeharreko lanek, gutxienean, 10 milioi inguruko aurrekontua izango dutela aurreikusten da. Orain, diru laguntza hori bideratu eta lanak lehenbailehen hastea geratzen da.



sukaldeko altzarien eta horma armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE Tel.: 943 71 25 08

*Bazkari
eta
afariak*

MATIKUA

Azatza auzoa
Tel.: 943 79 16 68

■ SAN KANUTO EGUNA

Orainarte jai ugari egin eta ospatu dira Santuen izenean. Santo Tomas, San Juan, San Pedro...

Asteburu honetan, barriz, orainarte ezezaguna zen, Santu baten ospakizunak egin ziren, San Kanutoren omenezkoak. Egutegian, santu horren eguna hilaren 19an azaldu arren, Gaztetxeko eta herriko beste gazte batzuren ekimenez, zapatuan egin zen jaia. Goizean, San kanutoren irudia eta marihuana otzarak asto gainean zirela, prozesioa egin zuten kalean zehar. Horrela, trikitixa, txalaparta eta umore onarekin poteoan aritu ziren goizean. Bazkariaren ondoren, barriz, Kaamudiak antolatutako diapositiba emanaldia eta hitzaldia egon ziren. Jaia ondo pasatzeaz gain, norberak bere kontsumorako marihuana landatzeko eskubidearen alde egin zen.



Kurtzebarri eta Santa Rita eskolako danborradak.

Danborrak astinduz San Sebastian bezperan

Aurten ere ez dira falta izan danbor hotsak herriko eskoletan. San Sebastian bezperan, hilaren 19an, astindu zituzten danborrak gaztetxoenek. Kurtzebarri eskolakoek, goizeko 11:30ean egin zuten beraien ekitaldia. Santa Rita haur eskolakoek, barriz,

arratsaldez. Bietan, haurrak eta beraien danborrak izan ziren protagonista nagusiak. Hori bai haurrak baino hauen gurasoek gehiago gozatu zuten ekitaldiaz. Denak adurra zeriela, seme-alabei erretrauak atera, eta bideo irudiak hartzen ibili ziren.

■ ZINE KLUBA EGITEKO PROIEKTUA AURKEZTU NAHI DUTE UDALETXE-

AN Aretxabaletako gazte talde batek, herrian zinetokirik ez dagoela eta, zine kluba egiteko proiektua aurkeztuko du udaletxean. Hilabetean behin gai bat aukeratu eta horren harian filma ematea da beraien asmoa. Oraindik, baina, gauza asko daude zehazteko, hala nola asteko zenbat pelikula emango diren, edo zein formatotan eskainiko diren zine ekitaldiak. Zine kluba jarriko den tokiari dagokionez, barriz, udaletxe zaharreko lokala aprobetxatzea gustatuko litzaieke gazte hauei. Hala ere, euren asmoa, ez da filmak ikusteko areto bat eskaintzea soilik. Pelikula bakoitzeko, informazioa ere banatuko dute emanaldi bakoitzean. Eskainiko diren filmak, mota eta garai guztietakoak izango dira. Baina beti ere, pelikula komertzialak, albora uzten saiatuko dira. Proiektua aurrera eramateko udalaren eta batez ere kultura batzordearen onarpena beharko dute. Hori lortuz gero, zine kluba izango dugu laster herrian. Zinemarik ez dagoenez, filmak ikusteko alternatiba egokia izan daiteke proiektu hau.



Aretxagazeta + Goienkaria DOAN

Hemendik aurrera Aretxagazeta eta Goienkaria zure etxeko buzoian doan jaso gura badituzu, ondorengo datuak bete eta bidali 151 postakutxatilara edo eta Aretxagazetako buzoian utzi (Durana, 11), udaletxe zaharreko edifizioan.

* Postaz bidali behar direnen kasuan, 1.500 pta ordaindu beharko da.

Izen-abizenak:

Helbidea:

Posta kodea:

Herria:

Tel.:

■ ZORIONAK GURE

LANKIDEARI Eñaut izena jarri diote Aretxagazetako lankideak izan berri duen semetxoari. Mirari Altubek urtarrilaren 17an arratsaldeko 18:30ak aldera izan zuen haurra, eskualdeko ospitalean. Eñautek 51 zentimetro eta hiru kilo eta erdi pisatu zituen jaiotzerakoan. Orain Mirarik ondo merekitako oporraldia hartuko du Eñaut zaintzeko. Bitartean, Amagoia Lasagabasterrek beteko du bere lana Aretxagazetan. Denon partez, zorionak guraso eta arreatxoari.



Aurrera doaz pasialeku barriko lanak

Pasialeku barria itxura hartzen

Urte barriarekin bat hasi ziren kiroletxeko zubitrik Errotabarrirainoko pasialekua egiten. Orain, hilabete eskas beranduago, goiko argazkian ikus daitekeen moduan, itxura bat hartuz doa pasio barria. Guztira, 3 metroko zabalerara eta 300 bat metroko luzera izango du. Bide guztian zehar, zuhaitzak landatu eta gura duenak atse-

den hartzeko aulkiak jarriko dira.

Markoleko etxeak egin zirenean onartu zen, erre-karen ezkerreko aldean ere pasioa egitea. Horretarako udaletxeak lanen ardurua Amaral enpresa eraikitzaileari eman zion. Honek 4 hilabeteko epea eta 22 milioiko aurrekontua izango du pasialeku berria egiteko.

BERRIKUNTZA ETA LAN

SARIA Aretxabaletan aurki zabalduko den Zainduz gimnasioak jaso du INEMek lan eta zerbitzu berritzaileei ematen dien saria. Orainarte lantegiei soilik ematen zitzaien I+D delakoren aitorpena. Horregatik Zainduz izango da, Debagoienean sari hau hartuko duen lehen zerbitzu enpresa. Aitorpen honen zergatia, Zainduzek gimnasioen arloan egindako lanean dago. Izan ere, betiko zerbitzuez gain Zainduzek fitness eta osasun zerbitzuak ere eskainiko ditu, hala nola, fisioterapia, osteopatia eta masaje zerbitzuak. Horrez gain Tai-chi bezalako ikastaroak ere emango dira. Beraien helburu eta nahia betiko gimnasioetatik apur bat desberdintzea izan da. Horretarako zerbitzu berean batu dituzte osasuna eta kirola. Horregatik guztiagatik, hain zuzen ere, eman diote aurtengo berrikuntza eta lan saria INEMekoek.



“ARINSA”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

Gustuko

AMETS

giroa

Iparragirre, 4
☎ 943 79 01 29

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Horma armairuak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak
- ◆ Beirate “fusing”ean kalitate handia

Herriko plaza, 8 behea ☎ 943 79 81 78 / 6700997274

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

Etorkizunetik eskutitza

(Gau-behi ero batek iraganera bidalitakoa)

2101. urteko urtarrilaren 6a. Arratsalde goxoa mendian. Abenduko hotzak heldu dira jadanik, baina, majo- majo, gustura gabiltza Degurixako belar freskua jaten. Kurtzebarri osteko Behi komunitate Anarkistaren ordezkari moduan idazten nabil. Antzinako neoliberalismoak (hogeigarren mendearen azken urteetan sortutakoa eta hogeitabatgarrenaren hasieran inposaturikoa), postkapitalismo basati baten aurpegia hartu du, honez gero aitzakiarik behar ez duen merkatu lege faxista, alegia.

Hogeigarren mendean, Arizmendiarrrieta izeneko/izaneko apaizak intenzio ezin hobez sortutako lan kooperatiba ("herriarentzat herriaren lana"), Fagor alegia, "Fabor" deitzen da gaur egun. Gabonetan oparitzen diren txakurkume horiekin gertatzen den gauza berdina gertatu da: txakur txiki polit bat izan zena, hilabete batzuk pasatutakoan, berrogei kiloko mamorro haragijale ikaragarria izatera iritsi da, eta jakina, ez dakigu non demontre sartu; balkoian ez da kabitzen kasetaxoa... Eta hauxe da garai hartan gizakiak "globalizazioa" deitzen zuzena: ekonomia haragijalea. Besterik ez.

Joan zen mendean, gizakiak sortutako azken aurreko performance mediatikoan, esponjiformea zen edozer buruan sartuta geneukala eta, behiak hiltzen hasi ziren. (Mendez mende gertatu bezala, euren laborategi beldurgarrietan sortutako gaitzak, abereak, landarak eta bizitza ezabatzen zuen. Betiko estrategia. Eta betiko errua: haizearen kontra ttuka eta gero Eolori kontuak eskatzen...)

Baina gizakien gauzak gizakientzat utz ditzagun. Jarraitu dezagun gure istorioarekin.

2092. urtean baserrietan kontrolaturiko azken behia hil zuten. Hiruatx ondoan bizi ginen behi bakar batzuk, Kaxildak entzundako susmo txarrak zirela eta, Degurixa aldera ihes egitea erabaki genuen. Hasieran benetan garai gogorrak izan ziren haiek. Egun argiz kobazuloetan eskutatzen ginen, eta gauetan, ixiltasuna eta iluntasuna lagun, urdaila belarrez betetzeko aprobetxatzen genuen. Gau-behiak gara gaur. Eta hemen bizi gara oraindik (ez dakit noiz arte), pozik eta libre, belarra jaten (eta erretzen) eta zelaian gora eta behera pasiatzen, gure gauzetan pentsatzen. Azkenaldi honetan irakurtzen eta idazten ere ikasi dugu (ikus -edo hobeto irakur daitekeenez, oraindik ez hain ondo). Eta gure Kaxilda, Bernardo Atxagaren behiaren semearen semearen alaba, bere memoria bitxiak idazten hasi da jadanik. Monterosoren behia ere, hor dabil, beti bezala, trenekin amets egiten eta ilargiari begira...

Oskar MATEO



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76

BENGOA
URDAITEGIA

*Bertako okelak
eta mortzilak*

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 20 14



BULEGO INFORMATIBOAK

Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza
Ferixalekua 15:00-19:00 943 77 20 25	Arizmendi 17:00-19:00 943 79 31 32	Jose Arana-Almen 14:00-18:00 943 71 44 86

G U N E A K :

HAUR HEZKUNTZA

- Olarte (2-6 urte)
- Santa Teresa (2-6 urte)
- S. Viator Txiki (2-6 urte)
- Umezaintza (0-6 urte)
- Jose Arana-Almen (0-6 urte)
- Sta. Rita (2-6 urte)

LEHEN HEZKUNTZA

(6-12 urte)

- Almen
- Gazteluondo
- Sta. Teresa
- S. Viator Txiki

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

(12-16 urte)

- Ferixalekua
- S. Viator
- Almen



Arizmendi
ikastola



Aretxabaleta okindegia

Elaboración Artesanal

Sam Islas

Basabe, 2 943 77 00 81
Loramendi, 6 943 77 17 19

Basabe, 2 943 77 00 81
Loramendi, 6 943 77 17 19

Basabe, 2 943 77 00 81
Loramendi, 6 943 77 17 19

Duela bederatzi urte etorri zen Gurutze Mujika margolaria Aretxabaletara. Izatez, goierritarra da bera, Beasaingoa. Betidanik izan du margolaritzarako afizioa. Horren adibide, Arrasaten bere margoekin egindako erakusketa.



Gurutze Mujika Margolaria

■ **Noiz hasi zinen margolaritzan?**

■ Betidanik izan dut gustoko, baina nire lehenengo oleoa 21 urterekin egin nuen. Orduetik ikastaro ugari egin ditut. Baina horrela, benetan kuadroak egiten 1994. urtean hasi nintzen. Orduan, Bergarako Juaristi margolariarekin egin nuen ikastaro bat. Gaur egun, barriz, AMAT Arrasateko margo taldean dihardut.

■ **Nolakoak dira zure margoak, ze ezaugarri dituzte?**

■ Basoak eta baserriak margotzen ditut gehienetan. Alaben erretratu batzuk ere egin ditut, baina normalean paisajeak margotu izan ditut nire koadroetan. Koloreei dagokienez, udazkeneko koloreak ditut gogokoen.

■ **Oraingo hau ahal da erakusketa bat egiten duzun aurreneko aldia?**

■ Ez, hau egiten dudan hirugarren erakusketa da. Orainarte, Mitarte Garain eta horrelako lekuetan egin izan ditut. Izan ere, hemen inguruan ez daude erakusketak egiteko toki egoki ugari.

■ **Salgai jartzen dituzu zure margoak?**

■ Bai, erakusketan bertan jartzen ditut salgai. Salneurriak aurreko erakusketetan saldutako margoetan oinarritutakoak izaten dira. Horrez gain, nire hirugarren erakusketa izanik, esperientzia ere kontuan hartu eta horren arabera jartzen diet salneurria. Bestalde, egindako kuadro batzuekin oso pozik gelditu naiz, eta horietan ere salneurria zertxo-

bait altuagoa izaten da.

■ **Non aurkitu edo bilatzen dituzu zure margoak egiteko ideiak?**

■ Askotan ideia argi bat eduki gabe pintzelak hartu eta margoan murgiltzen naiz. Beste batzuetan gertatu izan zait, basoren batean sartu eta han ikusitako kolore eta parajeekin sekulako kuadroa pintatzea. Horrelako kasuetan argazki bat ateratzen diot paisajeari, eta gero etxean margotzen dut.

■ **Margotzea zer da zuretzako, afizioa ala profesioa?**

■ Duda barik, afizioa da momentu honetan. Egia esan, ez dut margotzeko denbora askorik izaten. Nire lehenengo ardura, alabak dira. Horiek, denbora librea uzten badidate, orduan hartzen ditut pintzelak.

■ **Zein teknika erabiltzen duzu margoak egiterako orduan?**

■ Oleoz egiten ditut nire kuadro guztiak. Koloreei dagokienez, zazpi kolore eta hauen artean sortzen ditudan nahasketak erabiltzen ditut.

■ **Margolari gustuko bat?**

■ Inpresionista zalea naiz, beraz, bat aukeratzekotan Monet aipatuko dut.

■ **Enkarguzko lanik egiten duzu?**

■ Bakar batzuk egin ditut, baina nahiago dut margoak nire kabuz egitea. Prezio handia da beste norbaitek buruan duen kuadroa zuk pintatzea.

■ **Zein txoko margotuko zenuke gustura?**

■ Arientza.



1995. urteko Santa Ageda mutilak

Urtez urte Santa Ageda batzen

Herriko mutilak soldaduzkara joaten zirenetik ospatzen da Santa Ageda mutilen ohitura Aretxabaletan. Gaur egun eta orain 50 urte, ohituraren oinarriak, berdin jarritzen du. Lehengoek bezala kantuan, Santa Ageda batzen, eta dantza egiten jarraitzen dute egungo kintoek. Hala ere, guztiak berdin jarraitzen duenik ere ezin esan dezakegu. Hona hemen guk aurkitutako aldaketa batzuk.

Mende hasierako urteetan Santa Ageda aurreko domekan egiten zen aurrenekoz plazako dantza saioa. Badirudi, ez zuela gaur egun daukan garrantzia. Izan ere, orduan kaleko jantzi arruntez egiten zen dantza. Horren ostean

ez ziren gaur egungo bazkari eta afariak egiten. Orduan merixenda eskas batekin konformatzen ziren. Santa Ageda bezperan gaur letxe ibiltzen ziren baserriz baserri kantuan. Baina lehenengo goizeko 6:30ean itxafleroz herria josi beharrean, meza

entzuten zuten ordukoek. Garai hartan urtebete barruan heriotzaren bat izan zen etxean, errezua ala kantua zer gurago zuten galdetzen zitzairen. Gero arratsalde partean, oraingo dantzari jantziak jantzi eta plazan aureskua eta banako dantza saioa egiten

zuten. Hemen ere bazegoen desberdintasun txiki bat. Izan ere, neskek plazan bertan aukeratu eta atera aurretik, etxeetara joaten ziren nesken bila. Orduan, noski, herrian hiru kale besterik ez zeuden eta neskek ere, gutxiago izango ziren.

Aratusteei dagokienez, orain ez moduan, martitzen aratustea izaten zen egunik garrantzitsuena. Herriko mutilek txino dantza egiten zuten, baina erderaz. Egun osoan zehar danbolineruan soinuaz dantza eta entresakak kantatuz aritzen ziren. Entresakak herrian gertatutako gauza barregarriak kanta-tzeari deitzen zitzaion. Arratsalde ilunkara partera, barriz, Xoxuena atartean dantzaldia egoten zen.



hengo baserri gehienetan urtarrila-otsaila bitartean hiltzen zen txarria. Gaur egun, barrez, baserri gehienetan, aurrautzat batzuk ematen jarraitu arren, dirua da gehien banatzen dena. Orduko mutilek aterratzen zuten diru apurra kaleko etxeetan abestuz jasotakoa izaten zen. Hala ere, baserriko produktuak asko estimatzen ziren. Auzoko kintoek afari ederrak egiten zituzten eta norbaiten etxe edo baserrian. Orain zeresanik ez, diruak du aprezio gehien, eta afariak egin beharrean merixenda eta poteoak izaten dute garrantzia gehien.

Auzoetako kintoak

Orain 30 edo 40 urte, baserriko eta kaleko Santa Ageda mutilak banaturik ibiltzen ziren kantuan. Errakaldeko Santa Ageda mutilak, Arbizelai, Errotaxe, Elizgarai, Oro, Apotzaetxebarri, Arantzazar, Leizabal, Agarre, Errotabarri eta kaleko baserrietako mutilek osatzen zuten taldea zen. Mendiola Eskoriatza aldekoa izan arren, orduan, Arkarazoko mutilekin batzen ziren. Azkenik, urkulu aldean, arientzarrak eta koruetarrak batzen ziren, baina, larriñoak eta azatzarrek bananduta egiten zituzten ospakizunak.



Adin kontuak

Urteak pasa ahala auzoetan gero eta mutil gutxiago gelditu ziren. Horregatik orduan ez zen errespetatzen gaur bezala, Santa Ageda mutil izateko adina. Auzo askotan 15-16 urte bitarteko mutilak aritzen ziren kantuan. Gainera, urte bakarrean aritu beharrean, soldaduzka egin arteko urte guztietan ibiltzen ziren. Orduan adinak ez zeukan gaur daukan garrantzia. Klean, 1962. urtean, esaterako, 20 urte zituztenak izan ziren Santa Ageda mutil. Beste urte batzuetan, 21 urteko mutilak ibili ziren.

Orduan, gainera, kaletarrek klean bakarrik abesten zituzten Santa Ageda kantuak, eta auzotarrek alderantziz, baserriko baserri ibili ohi ziren. Askotan, gainera, Mendiolaraino ere joaten ziren, eta besteak urkuluko baserrietaraino ere jaisten ziren. Han baserri bakoitzeko atarian, Santa Agedaren bizitza eta heriotzaren inguruko bertsoak abestu, eta ordainez, txorizo, arrautza, odoloste eta mortzilak ematen zitzaizkien. Izan ere, le-

“Orain 30 edo 40 urte, baserriko eta kaleko Santa Ageda mutilak banaturik ibiltzen ziren kantuan”

Hogei urtetik hona, barrez, gutxinaka-gutxinaka soldaduzkara joateri utzi diote mutilek. Intsumisio mugimendua indar handia hartuz joan da herriko gazteen artean. Horren ondorioz, behin betiko adina ezarri zen, 18-19 urtekoa. Adin honetan izaten da gaur egun Santa Ageda mutil.

Gero eta mutil gutxiago

Datu guztien arabera, gero eta ume gutxiago jaiotzen dira herrian. Ondorioz, ez da arraroa, urtetik urtera, Santa Ageda mutilak ere, gutxiago izatea. Orain arte ez da horren nabaria izan beherakada hau. Izan ere, 70 eta 80. hamarkada hasieran jaiotako mutil kopurua antzekoa izan da. 1970. urtean, esaterako, 55 mutil jaio ziren herrian. 1982. urtean jaiotakoak, barrez, hau da, aurtengo Santa Ageda mutilak, 43 dira. Beherakada nabarmena,

baina datorren urtean nabarituko dugu. Izan ere, 1983. urtean, 24 gizona bakarrik jaio ziren. Hurrengo urteetako datuak ere, tankera berdinekoak dira. 1984. urtean 33, 1987an 29...

Arazo larriena, 2007. urteko kintoek izango dute. Urte horretan, 13 mutil besterik ez baitira egongo Santa Ageda batzen aritzeko. 1996. urtean jaiotakoak ere, ez dute lan erraza izango. Urte horretan, 10 mutil bakarrik jaio ziren- eta herrian.

AZKEN URTEETAN JAIOTAKO GIZONEZKOAK

URTEA	JAIOTZAK	URTEA	JAIOTZAK
1983.....	24	1992.....	32
1984.....	33	1993.....	31
1985.....	26	1994.....	22
1986.....	37	1995.....	21
1987.....	29	1996.....	10
1988.....	26	1997.....	34
1989.....	13	1998.....	17
1990.....	23	1999.....	15
1991.....	29	2000.....	26

**Aurtengo Santageda Mutilak**

Duela hamabost bat egun hasi ziren aurtengo Santa Ageda mutilak aurreneko dantza entsaioak egiten. 1982. urtean jaiotako kintoak izango dira aurten Santa Ageda jaietako protagonistak. Guztira 43 bat mutil izango dira aurten kantuan eta herriko plazan dantzan arituko direnak.

Dantza egitarauari dagokionez, otsailaren lehenen-



go domekan egingo dute aurreneko dantza saioa. Aurrez Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, baserriz baserri ibiliko dira. Hurrengo egunean, otsailaren 5ean, kalean Santa Ageda batzen aritu ostean egingo dute lehenengo dantzan saioa herriko plazan. Gero beste lau domeketan izango dute banakoa eta aureskua dantzatzeko aukera, aratuste domeka arte, aurten otsailaren 25ean. Egund horretan, aurreko urteetako ohiturei jarraituz, mutil hauek izango dira txino dantza egingo dutenak.


Dantzak nola egin erakusten, Igone Zaloña eta Ainhoa Calleja ari dira aurten ere. Orain arte, entsaioetarako lokalik ez zutela-eta, San Migeleko frontoian eta Iturrigorri pilotalekuan elkartu dira. Arazoak arazo gogo haundiarekin hasi dituzte entsaioak 82. urteko kintoek.

Herritarrek aurtengoan izango dute, 40 lagunek osatutako San Ageda mutil taldea ikusteko azken aukera. Datorren urtean, hau da, 1983. urteko kintoak, 23 besterik ez dira izango eta.



Futbola

Preferenteak liderra garaitu kanpoan. Azken norgehiagokan 1-2 nagusitu zitzaion Udako preferente taldea ligako liderrari. Mundaroren zelaian izan zen partidua, eta merezitako garaipena lortu zuten Enrique Nietoren mutilek. Lehen gola Mundarrok bere atean sartu zuen, eta bigarrena, Jonanek. Garaipen honi esker, sailkapeneko erdialdean dago Uda. Hurrengo jardunaldia Trintxerperen aurka izango du, hau ere kanpoan.



Xakea

Bi xake taldeek galdu. Arlutz A xake taldeak Gasteizko Hotel ruta Europa taldearen aurka 3,5-1,5 galdu zuen joan den asteburuan. Hala ere, talde gogorra zela kontuan izanda, 1,5 puntu lortzea ontzat jo dute taldeki-deek. Oraindik hiru partida gelditzen zaizkie liga bukatzeko, eta maila mantentzea izango da euren helburua. Arlutz Bk, barrez, 4-0 galdu zuen Grossen aurka. Mailaz igotzeko gero eta aukera gutxiago ditu gazte taldeak.



Pilota

Deba arroko pilota txapelketa hasi da. Martizenean jokatu ziren Deba arroko pilota txapelketako lehen partidua. Aretxabaletako hiru bikotek Bergararen aurka neurtu zituzten indarrak. Kadete eta jubenilek irabazi egin zuten, ez ostera, seniorrek. Datorren martizenean Aloña Mendiren aurka jokatuko dute Oñatin. Txapelketa hasi besterik ez da egin, eta hiru bat hilabetez luzatuko da.



Eskia

Otsailean eskiatzera. Murruxiko mendizale elkarteak eski urteera antolatuko du otsailaren 17 eta 18rako Luz Saint Sauvert-era. Gavarnie eta Luz Ardiden estazioetan eskiatuko da. Prezioa ikasle eta bazkideentzat 11.000 pta, bazkideentzat 12.000 pta, eta gainontzekoentzat 13.000 pta izango da. Autobusa, alojamendua, estazioko sarrera eta segurua sartzen dira prezioan. Interesatuok Murruxikoko lokaletik pasatu martizenean 19:00etik 20:30era.

Bederatzi urte zituela, hasi zen Alex Justel karatea praktikatzen. Bi urteren buruan, hori eta naranja kolorezko gerrikoa lortu du. Hala ere, udaberrian kolore naranjako lortzeko examina egingo du. Maila hori lortzeko teknikak ikasi eta hobetzeaz gain, karateko hitz espezifikoko ugari ere ikasi beharko ditu.

■ Zergatik hasi zinen karatean?

■ Amak kiroletxean karatea eman behar zutela esan zidan. Niri betidanik gustatu izan zait arte martzial hau, eta izena emutea pentsatu nuen. Bi urte pasatu dira ordutik, eta oso gustura ari naiz.

■ Zer da zuretzat karatea, kirola, arte martziala edo defenditzeko teknika bat?

■ Kirola denik ez nuke esango. Nire ustez Japoniako arte martzial bat da. Defenditzeko teknika ere bada.

■ Karateaz gain, futbola ere praktikatzen duzu.

Nora joaten zara gusturago? Nola desberdinduko zenituzke?

■ Karatea egiten dut gusturago. Futbolearen agresibitate gehiago dago, defenditzeko orduan adibidez. Karatea, barrez, defenditzeko teknika bat den arren, aurkariak ez badu tentatzen, karatek ez du inoiz eraso egingo. Defenditzeko bakarrik erabiliko du. Horrez gain, futbolearen lesio bat izatea samurragoa da.

■ Zein modalitate praktikatzen duzu?

■ Kyoukai eta Senkai modalitateak lantzen ditut batez ere.

■ kompetizioetara aurkeztu zara?

■ Ez, oraindik ez. Horretarako lizentzia eduki behar da. Datorren urtean lizentziatuko naizela uste dut,

Alex Justel

Karate ikaslea

eta lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izango dut horrela.

■ Zein gerriko jazten duzu?

■ Hori eta naranja kolorekoa. Karatean esperientzia polita daukadala esan gura du kolore horrek. Maiztzean, hala ere, naranja koloreko gerrikoa lortzeko examina egingo du.

■ Gogorra izango da?

■ Bai, oso gogorra. Teknika aldetik nahiko ondo nabilen arren, japoniarrez hitz mordo bat ikasi behar dira. Maixuak japoniarrez esango dizkigu teknikak, eta guk zer diren jakin behar dugu.

■ Zer eman dizu karateak bi urte hauetan?

■ Aurkaria ez jotzeko pazientzia izaten erakutsi dit. Karatearen helburua ez da aurkaria jotzea, norbere

burua defenditzen ikastea baino.

■ Zure burua defenditu beharko bazenu erabiliko zenuke karatea?

■ Nire lagunekin borrokan hasiko banintz beharbada ez, urduri jarriko nintzateke eta. Larrialdi batean agian bai.



KURTZEBARRIKO FUTBOL TALDEAK GIPUZKOAKO TXAPELKETARA

Eskolaz kanpoko kirolean, Kurtzebarriko infantil mailako nesken eta mutilen futbol taldeak Gipuzkoako txapelketarako sailkatu dira. Aurreko astebukarren izan ziren finalak. Neskek La Merced ikastetxearen aurka izan zuten azken partidua, eta 3-0 gailendu ziren Ibarra futbol zelaian. Mutilak, berriz, Oñatiko Txantxi Bren aurka neurtu zituzten indarrak Bergaran. Eraitza 4 eta 1ekoa izan zen atxalbaltarren alde. Finala irabazi ondoren, bi taldeak Gipuzkoako txapelketarako sailkatu dira. Apirila edo maiatza aldera jokatuko dituzte txapelketok.

EUSKAL LIGAKO UDA ALMEN TALDEAK GARAIPEN BIKAINA

Uda Almen Euskal ligako jubenilek garaipen bikaina lortu zuten azkenengo jardunaldian. Etxeko taldea 5 eta 2 gailendu zitzaion Anaitasuna taldeari. Garaipen barri honekin sailkapeneko bostgarren postuan dago jubenilen taldea 30 punturekin. Ligako liderra, barrez, Bermeo, hamar puntutara dago. Hurrengo partidua Barakaldoren aurka izango dute kanpoan.



Herriko karatekek ikasturtean ikasitakoa erakutsi ziguten zapatuan

Herriko 28 karatekek erakusketa egin zuten zapatuan

Zapatuan herriko karate taldeak erakustaldia egin zuen kiroletxean. Odilo Vazquez entrenatzailearen aginduetara 28 taldekidek hartu zuten parte. Maila eta adin desberdinetako karatekak izan genituen. Horietatik 22 6 urtetik 11 urtera bitartekoak, eta gainontzekoak, 11tik 29 urte artekoak.

Mailari dagokionean, gerriko txuritik hasi, eta naranja arteko hainbat maila egon ziren. Gerriko txuriak izan ziren gehienak. Honek maila hasi barria esan gura du. Hala ere, esperientzia gehiago duten karatekek ere hartu zuten parte. Gerriko naranja dutenak esaterako, hiru karateka izan ziren. Guztiek Kyokushinkai modalitatea erakutsi zigu-

ten.

Erakustaldi horren helburua gurasoei seme-alabek zer ikasten duten, eta zein maila duten jakinaraztea da. Horrela urtetik urtera beren seme-alabek nola hobetzen duten konturatzeko dira. Saio hau antolatzen den bigarren aldia da, eta orain arteko arrakasta ikusita, datorren urtean ere egiteko asmoa du Odilok.

Oñatiko txapelketa

Aurtengo urtera begira, Oñatiko karate txapelketan parte hartu nahiko lukete. Oñatikoa ez da txapelketa ofiziala, eta beraz, ez da federatuta egon behar. Dena dela, datorren urtera begira karateka nagusienak federatzea da Odiloren asmoa.

KIOLETXEAN ABONATU KOPURUA GORUNTZ

Urte barria hasteaz bat, iazkoaren balorazioa egiteko ordua ere iristen da. Kiroletxean esaterako 2000. urteari erreparatu badiogu, abonatu kopurua igo egin zen. 2000ko abenduaren 31an esaterako 1.718 pertsona zeuden Aretxabaletako kirol-zerbitzura abonatuak. Aurreko urtean baino %2,5 gehiago. Azken urteei begiratu, bestalde, urtetik urtera abonatu kopuruak gorantz egin duela adierazi digu Asier Mugika kirol teknikariak.

Kiroletxearen erabilerari dagokionez, irailtik onajasotako datuen arabera, sarrera torneoak irailean jarri baitziren martxan, 52.000 pertsona (alditan) inguruk erabili ditu kirol zerbitzuak.

Horrela, iazko balantzea guztiz itxi barik badago ere, %45 inguruko autofinantziazioa aurreikusten da aurtengorako. Iazkoa baino % 2 gehiago.




Zubia

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

MAITE

ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83



Ongizate Aurrezkian bikoiztu egingo dizkizugu interesak

4 milioi pta.tik aurrera,
2tik 3.999.999 pta.ra,
500.000tik 1.999.999 pta.ra,
0tik 499.999 pta.ra,

% 2,0 + aparteko % 2,0= % 4,0ko UTB
% 1,5 + aparteko % 1,5= % 3,0ko UTB
% 1,0 + aparteko % 1,0= % 2,0ko UTB
% 0,1 + aparteko % 0,1= % 0,2ko UTB

Eskaintza honek EAerako eta 2001-06-30era arte balio du.

Hiru errezeta Loramendi elkartearen eskutik

Gabonetan sukaldaritza ikastaroa antolatu zuen Loramendi eus-kara elkarteak. Dukiena jatetxeko Eburne Izarzelaiak eman zuen, eta bi plater goxo eta gazta tarta nola egiten diren erakutsi zuen bertan. Hona hemen errezetok. On egin diezazuela.

PIPERRAK TXIPIROIEZ BETETA

OSAGAIAK: Oliba olioia

2 kipula

3 txipiroi

Uruna (bi koilarakada eta erdi)

Esnea (litro erdi)

Perejila

Gatza


2 azenario

Tomate bat

Pistola edo ogi ziku piska bat

Piper gorriak

Bi basokada ur

 Bexamela egiteko ontzi batera olioia eta kipula erdi botako ditugu. Bitartean hiru txipiroi zatituko ditugu, eta ondoren, kazuelara bota. Gatz apur bat bota eta su bajuan ipini bigundu arte. Ondoren bi koilarakada eta erdi urun botako ditugu, eta ondo nahastu uruna desagertu arte. Honi litro erdi esne botako zaio, eta sendo geratu arte nahastu. Bexamela egindakoa, platertera atera eta frigorifikora sartuko dugu.

Txipiroien saltsa egiteko, kazuela batera olioia, kipula bat eta erdi, bi azenario, tomate bat eta pistola edo ogi ziku pixka bat botako ditugu. Gero guztiari sei poltsatxo txipiroi tinta botako dizkiogu eta bi basokada eta erdi ur. Egosten utziko dugu bigundu arte.

Frigorifikotik masa atera eta piperretan sartzen joango gara.

Barazkiak bigundu ondoren, irabiagailu elektrikotik pasatuko ditugu. Saltsa meheago geratu dadin txinotik pasatuko dugu.

Saltsa, piperrei gainetik botako diegu, piperrak estali arte. Irekin arte itxoin eta listo.

GAZTAI TARTA

OSAGAIAK: 5 arrautza

2 tarrina San Millan (gaztai freskoa)

azukarra 150 gr (sei koilarakada)

Nata likida (litro erdi)

Uruna (2 koilarakada eta erdi)

Mantekila

Mermelada (frutas del bosque)

LEGATZA KARRAMARRO SALTSAN

OSAGAIAK: 2 karramarro

Bi legatz tajada handi/4 txiki

Perrejila

Bi piper berde

Kipula bat

Bi azenario

Kopa erdi koñak

Baso erdi ardo zuri


Bi tomate

Berakatza

Gatza

Almejak

Uruna

 Kazuela batean karramarroak egosten jarriko ditugu, gatz eta perrejil piska batekin. Irakiten hasten denetik 10 minutu itxarongo dugu.


Saltsa egiteko, kazuelan olioia, kipula bat, bi pipar berde eta bi azenario ipiniko ditugu, eta gorritu arte itxoin. Bigundutakoan, baso erdi koñak bota eta sua eman. Ondoren saltsari baso erdi ardo txuri botako diogu, eta gero bi tomateak.

Karramarroak egositakoan, atera eta frigorifikoa sartu. Berauek egosteko ibili dugun ura frigitura bota eta egosten utziko dugu, 15-20 bat minututan, irakin egin behar du.

Karramarroak frigorifikotik atera eta zuritu egingo ditugu, mami guztia atera arte. Mami saltsara botako dugu eta apur batean bertan eduki. Gero irabiagailu elektrikotik pasatuko dugu.

Lurrezko kazuela batean, olioia eta berakatza ipiniko ditugu, eta berotzen denean txirlak bota. Bestalde, legatzari, gatz piskat botako diogu, eta irinetan pasatu ondoren, lurrezko kazuelara bota. Apur batean edukiko dugu legatza egin dadin, eta buelta emango diogu.

Bukatzeko karramarro saltsa legatzari gainetik botako diogu eta bost minutu sutan eduki. Perejila bota gainera.

 Bost arrautza, bi tarrina San Millan, sei koilarakada azukre, nata likidoa litro erdi, eta bi koilarakada eta erdi urun bol batean jarriko ditugu, eta irabiagailu elektrikoan nahastu.

Molde batean mantekila igurtziko dugu, eta gainera, urun pixka bat botako diogu. Masa moldera botako dugu eta labera sartu.

Labean 15-20 bat minutu edukiko dugu, 160° - 180°tara, eta polito egiten joango da kanpotik barrura. Eginda dagoela ikusten dugunean, mermelada gainetik botako diogu.

Maiteder Astaburuagak beste lankide batzuekin batera Aretz taberna zabaldu berri du. Ilusio guztiak jarri dituzte negozio berrian, eta momentuz oso gustora daude herritarrek egin dieten harreraz.

Maiteder Astaburuaga "Herritarrek oso harrera ona egin digute"



- Arrasatearrak izanik nolatan Aretxabaletara?
- Hementxe ikusi genuen taberna zabaltzeko aukera, eta herria bera gustoko genuenez, aurrera egin genuen.
- Zaila izan da negozioa aurrera ateratzea?
- Bai, ez nuen sekula pentsatuko horrenbeste lan suposatuko zuenik.
- Eta zelakoa izan da herritarren erantzuna?
- Oso ona. Beldurra genuen hasieran, baina egia esan, jendearen harrera oso beroa izan da.
- Tabernari lanetan esperientzia bazenuen?
- Ez, lehenago kooperatiban ibilitakoa naiz, sekula ez taberna batean. Hala ere, ilusio haundiz ekin diot lanari eta oso gustura nago.
- Zenbat langile zaudete?
- Astegunetan lau lagun gaude, eta astebukaeretan sei.
- Zer du ona eta zer txarra lan horrek?
- Momentuz ez diot alde txarrik aurkitu. Ona, bestalde, bezeroekin egiten duzun erlazioa.
- Zer da gehien edaten dena?
- Kafeak eta txikitoak.
- Taberna barruan ala kanpoan gusturago?
- Bietan gustura. Taberna itxi ondoren, gainera, nahi iza-

nez gero, badugu juergak botatzeko aukera.

- Gaiz aldatuz, zer du polita neguak?
- Niri uda gustatzen zait, eta neguari ez diot gauza on askorik ikusten.
- Errealala ala Atletika?
- Errealala.
- Gustuko duzu Toshak?
- Bueno...
- Taldea mailaz jaitsiko da?
- Ez horixe. Txarto ibiltzearen errua jokalariek dutela uste dut. Gainera, ez lituzkete horrenbeste kanpotar ekarri behar. Harrobiko jokalariei aukera gehiago eman behar zaie.
- Bertute bat.
- Egia beti aurretik ibiltzea.
- Noiz elkartzen zara lagunekin?
- Orain denbora dudanean.
- Behi eroen kontua dela eta, behi haragi gutxiago erosten duzu?
- Ez, berdin-berdin.
- Eta zer uste duzu kontu horren inguruan?
- Hemendik aurrera okela hobea jango dugula.

**San Migel
erretegia**

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71

**ANDRA
MARI**
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Marti

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72



Urte barri, umeak ekarri

Urte barri, umeak ekarri. Horrela dio esaera zahar batek. Atxabaltar bat baino gehiago izan da, esaera zaharraren aholkuak jarraitu dituena. Urteko lehen jaioberri atxabaltarra, **Enea Borrego Aldai** izan genuen, urtarriaren 7an jaio zen. Baina hau ez da urtarriaren jaio den bakarra izan. Urrun joan barik, gure lankidea den **Mirari Altubek Eñaut Beltran de Heredia Altube** ekarri zuen mundura urtarriaren 17an. Zorionak Mirari eta Felis, eta baita urtea hasteaz bat guraso izan diren gainontzeko guztiei ere. Urtea oparo hasi dugu, eta oparo jarraituko duen itxura dauka. Gure lantokian, bestalde, lankide barria izango dugu. **Amagoia Lasagabasterrek** beteko du datozen hilabeteotan Mirariren postua. Egia esan, ez da lankide barri-barria. Ia ia etxekoa ere badela esan dezakegu, lehenago ere gurekin ibilitakoa baita Atxabalta telebistan.

Loramendi literatur lehiaketak ere eman digu barririk. Makina bat sari banatu ziren aurreko astean. Hala ere, aurtengoan sari berezi bat egon da. Elkarrizketatu onenari

eman diote saria, eta berau Arientzako **Maria Gallastegi** izan da. Zein ondo kontatzen dituen Mariak kontuak!

Beste Maritxu baten kontuak ondoren. Aurreko zapatuan trikitilari eta astoaz lagundutako koardila haundi bat ibili zen kalean gora eta behera. Ez dakit ikusi zenituzten. Maritxu askatu izeneko kartel bat zeramaten aurrean. Eta Maritxu hau zein den? Ba... landatu eta gero erre egiten da, hortik atera kontuak. Eguakotxean San Kanuto eguna zela eta, zapatuan Santu honen omenezko eguna ospatu zuten. Originalak badira behintzat gaur egungo gazteak.

Gazte kontuekin jarraituz, aurten Santa Ageda mutil izango direnak pozik izango ditugu. Dagoneko hasi dira entsaiatzen. Iturri gorri frontoian eta Santa kurtzeko frontoi gorrian egiten dituzte entsaiuak. Irakasle lanetan **Igone Zaloña** eta **Ainhoa Calleja** ari dira. Mordoxka bat ei dira aurten ere, 43 bat inguru. Plaza behintzat bete-beteta izango da Santa Ageda egunez. Gora Santa Ageda!

M. J. Arretxe

LIBURU BERRIEN ZERRENDA

6 URTETIK AURRERA:

- Euskal ipuinen bilduma (Xola ehizan, Martin Txiki, Oihaneko mutikoa, Urregorritzko kutxa, Izar bat erori da zerutik lurrera, Mari, Joselontxo bildurbako, Ke gorria botatzen zuen tximinia, Eskolan eta Bakarrik eta buztan-gabe) (Testua euskaraz eta ingelesez).

- Magalik badaki / Patxi Zubizarreta

8 URTETIK AURRERA:

- Potoloa naiz, eta zer? / Seve Calleja

- Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer? / Andoni Egaña

- Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer? / Anjel Lertxundi

- Nire aita etxekoandrea da, eta zer? / Silvia Ugidos

10 URTETIK AURRERA:

- Otsoaren begirada / Daniel Pennac

12 URTETIK AURRERA:

- Harry Potter eta sorgin-harria / J.K. Rowlings

- Manolito gaixoa / Elvira Lindo

- Tunelaz bestaldean / Joxerra Garzia Garmendia

NOBELAK:

- Lur bat haratago / Joan Mari Irigoien

- Rock'n' roll / Aingeru Epaltza

- Zazpi kolore / Jon Arretxe

- Gutziak

- La caverna / José Saramago

- La bailarina ; El clon / Danielle Steel

- Tierra sagrada / Barbara Wood

KONTSULTA LIBURUAK:

- Txalapartatik modemera : Internet Euskal Herrian, Euskal Herria Interneten / Goio Telletxea

- Jesus Peña : idazle Atxabaltarra

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

- Miren ~~badau?~~

- Ba... egon... nunbaiten egongo da, baina etxien ez (txarto).

- Miren etxien dau?

- Ez, kalera urtetie ein dau (ondo).



URTARRILA**28 DOMEKA****■ MENDI URTEERA**

Zaraia mendi taldeak Topinburu mendira urteera egingo du. Topinburu Eibar, Maltzaga eta Soraluze artean dagoen mendia da. Goizeko 8:30ean izango da urteera Zaraia lokaletik.

OTSAILA**3 ZAPATUA****■ SAILLUENTERA URTEERA**

San Blas eguna dela eta, Murrukixo mendi elkar-teak Sailuente ermitara urteera egingo du umee-kin. Urteera ordua goizeko 9:30ean izango da partenoitik.

■ SAN BLAS EGUNA

Sailluenteko ermittan meza izango da goizeko 10:30ean. Ondoren 11:15 inguruan janari eta erramuak bedeinkatuko dira.

4 DOMEKA**■ SANTA AGEDA BEZPERA**

Santa Ageda mutilek usadioari jarraituz, baserriz baseri kantatuko dute.

5 ASTELEHENA**■ SANTA AGEDA EGUNA**

Santa Ageda mutilek kalean kantatu eta batuko dute. Arratsaldean, barrez, euren lehen dantzaz saioa egingo dute herriko plazan arratsaldeko 19:00etan.

17-18**■ ESKI URTEERA**


Murrukixo mendizale elkar-teak eski urteera antolatu du otsailaren 17 eta 18rako Frantziako Luz Saint Sauver-era. Izen ematea Murrukixoko lokalean egin behar da martizenetan arratsaldeko 19:00etik 20:30era.

**IKASTAROAK****■ SALOIKO DANTZAK**

Loramendi euskara elkar-teak eta Tril emakume taldeak saloiko dantzen ikastaroa antolatu dute. Urtarrilean hasiko da eta eguakotxetan emango da 19:00etatik 20:30era. Irakaslea Natalio Maiztegi izango da. Izena eman gura izanez gero Loramendira zuzendu edo eta 943 77 09 70 telefonora deituta egin daiteke.

■ PATINAJE IKASTAROA

Aretxabaretako kirol zerbitzuak antolatu duen patinaje ikastaroa datorren zapatuan da hastekoa. Hala ere, oraindik izena emun gura dutenek horretarako aukera izango dute, kiroletxean bertan edo eta 943 71 26 28 telefonoan.

**BALONKASTUAK (Hikaz berbetan)**

Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

Zorion agurrak



Jone Leibar
Urtarrilak 20
Etxeko partetik
zorionak.



Adolfo Manteka
Urtarrilak 22
Zerbitzari "zintxoan",
"puntualean" eta
jatorrenari. Zorionak
bezere baten partez.
Jarraitu horrela
Bittor.



Osane Ayastuy
Urtarrilak 26
Zorionak etxeko
guztien partetik
eta batez be Josun
partetik.



Iñaki Agirre
Urtarrilak 31
Zorionak emaztea
eta familiakoan
partetik. Egun on
bat izan.



Julita Gonzalez
Urtarrilak 31
Zorionik beroenak
etxeko guztien par-
tetik.

Sail honetan norbait zoriondu gura baduzu Aretxagazetara zuzendu (Durana, 11) edo eta 943 79 86 21 telefonora deitu.

Txistuak • Txaloak

Orain sei hilabete, industrialdeko E pabilioiko fatxadaren adreilu eta porlan zati batzuk Araba Ibilbide aldera jausi ziren. Eraikinean arazo batzuk zirela eta, edifizioaren zatirik altuena zartatu egin zen, kalera eraikinaren zatiak jausiz. Momentu hartan, oporren bizperan, bidea moztu eta zinta zuri-gorria jarri zen, arriskuaren berri emateko. Hala ere, haizeak zinta apurtu zuen, eta gaur egun, gabonetako apaingarria dirudi. Hemen doa **txistua**, dagokionak entzun dezan. Jendeak bertatik pasatzen jarraitzen du. Zatiak zintzilik jarraitzen dute eraikinean, eta gaia aztertzen dabilzan arren, noiz geldituko gara arriskutik kanpo?



Jaiotakoak

■ **Enea Borrego Aldai**
Urtarrilaren 7an.

■ **Arian Lopez Valdezate**
Urtarrilaren 11n.

■ **Eñaut Beltran de Heredia Altube**
Urtarrilaren 17an.

Hildakoak

■ **Daniel Igartua Arana.**
74 urte
Urtarrilaren 18an.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murrukixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otorra	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udala Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdia

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Kinttotan angulak jaten

Hona hemen 1966. urtean kinto izan ziren Santa Ageda mutilak. Gazte-gazte ditugu plazako arkupean ateratako fotografia zaharrea; 20-21 urte besterik ez dituzte. Orduko mutilek oraingoek baino berandua go ospatzen zuten Santa Agedaren omenezko ohitura hau.

Argazkian dagoen Jose Ramon Aranzabalek gogon du Santa Ageda mutiletan egin zituzten jatordu piloak. Eta ez edozelakoak, gainera. Angulak zazpi bat

bider jan zituzten. Edozela ere ez zuten oraingo prezioa izango. Eta Pagaldai-xeneko eta Gureako txokolatea ere ez zen faltatu. Dirutza polita batu arren, egin zituzten afari piloak kontuan izanda (20 bat guztira), ez zen nahikoa izan, eta euren poltsikotik ere jarri behar izan zuten.

Zaldibiko bi txistulariekin lagunduta honako hauek dira argazkian ageri direnak. Goian ezkerretik esku-mara: **Jabier Padilla, Jesus Lonbide, Jesus Aldai, San-**

tiago Zubizarreta, Jose Ramon Aranzabal, Arizkorreta (zaldibiko txistularia), Jesus Mari Andres, Rikardo Garro, Jose Antonio Jaurerri, Jose Mari Etxebarria (txistularia).

Behean ezkerretik esku-mara: **Juan Mari Iturbe, Jose Luis Zubiria, Jesus Maria Arrese, Jose Kruz Urzelai, Albaro Urreta, Lorentxo Gorroño, Roberto Urreta, Luis Mari Otxoa, Anjel Barandiaran.**

Argazkia eta informazioa: Jose Ramon Aranzabal.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Taberna eta jatetxeak

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



**Kafetegia
eta
taberna**

H A I Z E A

Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

Artano taberna

**Herriko plazan
ARTANO**

Girorik onena Herriko plaza, 3
943 79 62 75

Gurea taberna

*Eguneko menuak
plater konbinatuak*

GUREA

Durana kalea • 943 79 20 64

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

Arlutz taberna



MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

Gustoko musika Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte Kalea, 12 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 00 00

Zatoz gure musikaz goatzera

Mitarte, 9 • 943 79 92 01

Dorleta taberna

Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
943 79 94 15

Mendiola erretegia

ESKORIATZA
ERRETEGIA
MENDIOLA
Tfno 714345

**Bazkariak
eta afariak**

**Astehenetan
itxita**

Mendiola auzoa • Eskoriatza • 943 71 43 45

Baster alde jatetxea



**SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN**

Galartza auzoa
943 79 24 58
ARETXABALETA

Express



Santa Kurtz, 16
943 79 23 43

zure gustoko giroa

Mitartegarai

*Mitartegarai
Jatetxea*

ARLUTZ 11ZOA
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51



Josu taberna

*Josu
harategia
taberna*



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08

Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
943 79 20 67

Urbaltz taberna


**URBALTZ
TABERNA**
Urbaltz taberna

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA



lider **naturala**

Hona hemen Ford Mondeo Berria. Harrituko zaituen autoa. **Babeserako Sistema Adimentsu Esklusiboarekin.** Abian noiz jarri badakiten belaunaldi berriko 6 aire poltsarekin. ABSrekin. EBArekin. Egonkortasun Kontrol Sistemarekin. Eta askoz gehiago. Kanpo diseinu ausarta eta dotorea. Aluminiozko 16 vko motoreen belaunaldi berria, potentzia handiagokoak eta eraginkorragoak. Gasolinan 170 cv ra artekoa eta 115 TDdin. Argibide gehiago eta froga www.ford.es edo 902 442 442

ford**mondeo** berria 

 **MUGARRI**

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 54 • jefeventas@mugarri.es